

2001ean, bigarren urtez, Euskal AEk migrazio-saldo positiboa du


% 32 gehitu dira atzeritik datozen pertsonak.

2001. urtean, joan zirenak baino 7.079 lagun gehiago etorri ziren Euskal AEra, Eustatek emandako datuen arabera. Bigarren urtez jarraian, migrazio-saldo positiboa du autonomia-erkidegoak. Izan ere, 1991z geroztik, ia etenik gabe gutxituz joan ziren saldo negatiboak harik eta 2000. urtean positibo bilakatu ziren arte.

Lurraldeka, Bizkaiak, 3.184 lagun irabazi dituenaz, migrazio-saldorik altuena du kopuru absolutuetan, eta aurreko urtearen aldean % 284 hazi da saldo hori. Gipuzkoak 1.579 lagun irabazi ditu migrazioagatik, eta % 596 gehitu du saldo positiboa, aurreko urtearekin alderatuta. Arabak, berriz, gehikuntza txikiagoa du, % 54koa, 2.316 lagun irabazita.

Euskal AEren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko mugimenduak besterik kontuan hartzen ez badugu, aurreko urtean baino 2.892 lagun gehiago etorri ziren 2001. urtean, hau da, % 22 gehiago. Nahiz eta Euskal AEren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko saldoa oraindik negatiboa den, saldo hori % 201 murriztu da, eta 1.338 lagun galdu ditu. Beste alde batetik, atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoa positiboa da, 8.417 lagun gehiago ditugu alde horretatik; aurreko urtean baino % 32 gehiago.

1. grafikoa.- Migrazio saldoaren bilakaera Lurralde Historikoka.



Iturria: EUSTAT

Egoitza-aldaketek Euskal AEko biztanleen %7,3ri eragin die 2001. urtean; aldaketen % 71tan, mugimendua Euskal AEn barruan izan da; eta gainerakoetan, berriz, mugimendua erkidegotik kanpoko izan da.

Guztira, ohiko egoitzaren 153.338 aldaketa zenbatu dira Euskal AEn:

- Egoitza-aldaketa horietatik 73.765 udalerri beraren barruan gertatu dira.
- Erkidego barneko mugimenduak, guztira, 35.102 izan dira. Bai jatorria eta bai helmuga Euskal AEko udalerrietan dituzten mugimenduak dira horiek.
- Era berean, kanpoko —erkidegoaz kanpotiko— 25.775 immigrazio gertatu dira. Jatorria gure erkidegoaz kanpoko udalerri batean eta helmuga Euskal AEn duten mugimenduak dira horiek.
- Azkenik, kanpoko —erkidegoaz kanpoko— 18.696 emigrazio gertatu dira. Jatorria gure autonomia-erkidegoko udalerri batean eta helmuga gure erkidegotik kanpora duten mugimenduak dira horiek.

1. taula.- Migrazio-mugimenduen eta -saldoen bilakaera. Euskal AE.

Urtea	Emigrazioak		Inmigrazioak		Migrazio-saldoa
	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988=100)	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988=100)	Guztira
1988	18.103	100	8.014	100	-10.089
1989	17.633	97	10.120	126	-7.513
1990	15.771	87	10.930	136	-4.841
1991	14.751	81	12.140	151	-2.611
1992	13.668	76	9.006	112	-4.662
1993	14.096	78	9.554	119	-4.542
1994	16.179	89	10.809	135	-5.370
1995	16.130	89	11.316	141	-4.814
1996	14.356	79	11.299	141	-3.057
1997	14.234	79	12.496	156	-1.738
1998	16.585	92	14.372	179	-2.213
1999	17.291	96	16.103	201	-1.188
2000	17.462	96	20.022	250	2.560
2001	18.696	103	25.775	322	7.079

Iturria: EUSTAT

Kanpoko edo erkidegoz kanpoko mugikortasun geografiko hori txiki samarra da, beste autonomia-erkidegoekin ekartzen bada, haietan mila biztanleko 29 mugitzen baitira. Euskal AEn, berriz, 2001. urtean mila biztanletik 21ek izan zuten halako mugikortasuna (Arabak % 27, Bizkaian % 23 eta Gipuzkoan % 16).

Euskal AEn **emigrazio-tasa** 2001. urtean % 8,9koa izan da; eta atzerrira egindako emigrazioa kenduz gero, % 8,4koa, autonomia-erkidego guztien batez bestekoaren bi puntuz azpitik. Beste erkidego batzuk (Errioxa, Gaztela-Mantxa, Balearrak eta Ceuta-Melilla) batez bestekoa baino gorago dabilta; eta, % 11ren eta % 30en artean direnez, Euskal AEko tasaren gainetik ere bai.

Euskal AERI bertatik jasotzen duten biztanleria baino gehiago **ekarri dioten autonomia-erkidegoak** hauek dira: Katalunia, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Asturias, Galizia, Extremadura eta Aragoi, bai eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak ere (76 laguneko saldo positiboa dago haiekin). Atzerriarekin, 8.417 laguneko saldo positiboa erregistratu da 2001. urtean.

Euskal AETiko emigrante gehien **erakarri duten autonomia-erkidegoak** honako hauek izan dira, hurrenkera honetan: Gaztela eta Leon, Kantabria, Madril eta Valentziako Erkidegoa. Lauen artean, gure erkidegoa uzten duten bi lagunetatik bat hartzen dute.

Atzerriko nazionalitatea duten **immigranteak**, 2001. urtean, 11.353 lagun izan direla zenbatu da, hots, aurreko urtean baino % 55 gehiago, eta gure erkidegoko sarrera guztien % 44 izan dira. 1988az geroztik, nabarmen gehitu dira atzerriko nazionalitatea duten immigranteen sarrerak, Euskal AEn. Kopuru absolututan, 500 sarrera ingurutik 10.000 pasara igo da 2001ean, hau da, atzerritarren immigrazioak hogeirekin biderkatu dira hamabi urtean. Kontuan izan behar da atzerriko immigranteetatik zenbait beste autonomia-erkidego batzuetatik etorri direla. Zehazki, 2001ean 3.152 kasutan gertatu zen hori.

Titulu-mailari dagokionez, titulu-maila apalenetakoak dira immigrazioen % 48 eta emigrazioen % 50; goi-mailakoetan ez da alderik, % 17 dira.

Emigranteen **batez besteko adina**, 37,2 urte, immigratzaileena (33,6) baino 3,6 urte handiagoa da.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: 49-945 017 549. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es